

TANTAKA: DONALD TRUMP



Gezurra ba zidurien ere Donald Trumpek aise irabazi ditu AEBen hauteskundeak. Ezustean harrapatu du hango eta bertako klase politika. Kazetariak eta politika adituak saiatzen ari dira nola posible ote izan den holako errepublikanoen garaipena, eta horretarako erabiltzen ari dira zenbat portzentaje taula, hainbat estatistika. Gazteek uste zena baina gutxiago bozkatu dute, latinoak eta beltzak ez dira espero zen neurrian hurbildu hautestontzietara, emakumeok huts egin dute eta bizkarra eman diote Hillary Clintoni... eta ez dakit zer arrazoi zerrenda luze bat. Kontatzen ari direnaren jakin ganean gaude, AEBko biztanle erdia ez dago zentzua bozka ahal izateko, eta zentzuta dauden artean %37ak paso egin du, inoiz baino jende gutxiago bozkatu du. Bai errepublikanoek, bai demokratek aspaldiko partez, boto kopuru txikiena jaso duten. Baina gertatu denaren arrazoiak non daude?, zerk bultzatu du jendeak ez bozkatzeko? Ba ez da oso zaila asmatzea, Iparramerikako ezkerrek hasieratik garbi ikusi zuen Trumpek neokontserbadoreak ordezkatzeko zuela eta Clintonek muturreko liberalak. Ez zegoen ezer aukeratzetik. Trumperi buruz ez dugu esan behar ezer gehiagorik, denok baitakigu ze motako astapotroa den, baina Clinton ez da izan, Espainako sozialdemokratek saldu nahi diguten bezala, hautagai aurrerakoa? Ba... ez, Clinton andrea, oso aberatsa da, gehiegi aberatsa pobreen izenean hitz egiteko, beti egon da lerratuta kanpoko amerikanoen interbentzionismoaren alde, gerrazale sutsua da, ekonomiaren arloan, TTIPren aldekoa da. Ekologia arloan beti nahiago izan du enpresen etekinak bermatzea natura baino. AEBko establishmen kide tipikoa bat. Nola sinetsi, aurrekari penal hauekin, ezkerreko ahotsa izan zitekeen?, inolaz ere! Burutik jota gaude holakorik pentsatzeko?

Ezkerreko eta iraultzaile pertsonak ez dute bozkatu eta hauek dira egun hauetan karririk hartu dituztenak, hauek dira alderdi demokratatik landa, Trumperen kontrako mobilizazioak antolatzen, bultzatzen eta parte hartzen dutenak, hauek dira giza eskubide sozial eta pertsonen alde matxinada prestatzen ari direnak. Han daude gure lagun libertarioak talde eta sare

sozialak ehuntzen, autogestioak mamitzen, elkartasuna zabaltzen, beste mundu bat irudikatzeen. Justizia eta askatasunerantz beste biderik ez dagoelako.